

Fitxak ala... Fitxarik gabeko "dicha"?

Antzuolako Herri Ikastetxea

J.J. Kintela, M. Etxezarreta, R. Agiriano, A. Zabalo, M. E. Irazabal, A. Mujika (Haur eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloko hezitzaile taldekoak)



Ondorengo lerroetan, aurre-idazketarako fitxa liburuek egiten dituzten proposamenei aurre egiteko behar diren gaitasun grafomotoreak, 3tik 5 urte bitarteko haur guztien berezko ekoizpenetan azaltzen direla frogatzen saiatuko gara.

Zer gertatzen da grafia fitxekin?

Guk ez dugu fitxarik erabiltzen. Ez dugu idazketa-irakurketa apendizaiari aurre egiteko beharrezkoak diren trebetasun grafikoak bultzatzeko pentsaturiko fitxik erabiltzen.

Guk ez dugu fitxarik erabiltzen. Eta guregana etorritako hainbat jende harriturik gelditu izan da, fitxa horiek trazu zuzena, norabide zehatza... konbentzio batzuk bereganatzeko behar-beharrezkotzat jotzen baitute.

Ez dugu fitxarik erabiltzen, ezagupenaren eraikuntzan sinesten dugulako, berezko ekintzari eta ingurunearekiko elkarrekintzari lehentasuna emanez, eta ez dugu sinesten berriz, kanpoko inposaketaz ezagupena eraikiko denik.

Zergatik? Haurren autonomia, inziatiba, konfidantza eta jakinmina bultzatuko duen Hezkuntza Proiektu batean sinesten dugulako, eta berezko ekintzari lehentasuna ematean (haurrengandik sortutako ekintzak, buruko antolaketa maila handia duena bere baitan), helburu horien lorpena errazten dugula uste dugulako.

Ez dugu nahi soil-soilik berezkotasuneangelditu, berezko ekintzak bultzatzean bakarrik. Garapena indartu nahi dugu elkarrekintzak oinarritzat hartuz. Elkarrekintza hauetan helduak ez ditu bere ideiak inposatuko, baizik eta haurren inziatibak oinarritzat hartuz, beraien trebeziak eta ezaguerak handituko dituen markoa hedatzen saiatuko da.

Marko hau helduak antolatuturiko ekintza egituratuak definituko luke; hori bai, kontuan harturik edozein ekintzak bi alderdiak aldi berean dituela: egituraketa eta berezkotasuna.

Egitureturiko ekintzaren oinarrian berezko ekintza egon badaiteke ere, kontzeptu biak

(berezkoa eta egituratua) gako-
en artean jarri nahi ditugu,
praktikan, ez bata eta ez bes-
tea, berezko hutsa edo egitura-
tu hutsa ez direlako.

Ondorioz, ekintza baten
aurrean gure helburua prakti-
ka mota bat diseinatzea izango
da, praktika honen baitan
aspektu zuzentzaile/ez zuzen-
tzailea izango direlarik.

Eta horregatik, trebetasun
grafomotoreen lorpenerako
lehenetsia berezko ekintzari
ematen badiogu ere, helduak
egituraturiko ekintza batzuk
proposatuko ditugu lorpen
horiek aberasteko.

Gure eskolan, berezko espe-
rientzia grafomotoreak bultzat-
zeko espazio bat dugu. Ber-
tan, haurren ekimenetan
oinarrituz, proposamen zehat-
zak egiten ditugu trebetasu-
nak hedatzearen. Adibide
batzuk:

- Haurrek ekarritako objektu
baten marrazkia, objektu hori
begi aurrean izanik: mugime-
naren/geldiketaren, soinu-
aren/isiltasunaren... adierazpen
grafikoa.

- Taldeko elkarrizketan sor-
tutako egoera baten adierazpen
grafikoa.

- Haurrengandik gertu dago-
en gertakizun batekin zer iku-
sia duten pertsonai edo egoe-
ren adierazpen grafikoa.

- Haur batek berez egindako
marrazki bat oinarritzat har-
tuz, proposamena talde osoari
zabalduta adierazpen grafiko
mailan.

Ez dugu fitxarik erabiltzen
(aurreko urteetan erabili badi-
tugu ere), aurre-idazketa lan-
tzeko liburuetan azaltzen diren
grafia guztiak, haurrek egiten

dituzten ekintzetan berez azal-
tzen direla ziur egotera iritsi
garelako.

Hasiera batean intuizioa
bazen ere, haurrek egindako
marrazkiak aztertzerakoan,
egiaztatzen joan ginen eta gaur
egun uste sendoa da.

Eta ondorengoaren egiaztape-
naren ondorioz, ustea sendoa da:

3 urtekin grafia hauek azal-
tzen dira:


- Borobilak, laukiak, lauki
zuzenak, triangeluak eta arku
itxiak

- Lerro bertikalak, horizonta-
lak, diagonalak, espiralak, uhi-
nak eta kiribilak.

- Aurreko grafien kombina-
keta: gurutzak, ikoroskiak
(aspa, x), lerro hautsiaz osatu-
riko segida.

- Grafia, antolaketarik gabe
azaltzen dira eta zehaztasun
gutxiko eta ondo landu gabeko
trazuak.

4 urtekin:



- Zentru bereko borobilak.
- Irudien konbinaketak iko-
roskiak eta gurutzak erabiliz.

- Irudien lerroakadura: lauki,
zirkulu, triangelu eta irudien
konbinaketak.

- Lerro horizontal eta berti-
kal saila, lerro bat eta bestea
tartekatuz.

- Lerro bertikal eta diagonal
saila, lerro bat eta bestea tarte-
katuz.

- Grafia eta irudien kombina-
ketak gero eta aberatsagoak
dira.

- Simetriak.

- Espazioaren banaketa.


- Puntuak.

- Lehenengo esperientzia
automugatzailak. Marko batez
mugaturiko grafia guztiak:
lerro horizontal edo/eta berti-
kalak, marko triangelu, karra-
tu eta laukizuzenak izanik.

- Letra eta zenbakiak.

- Trazua gero eta zehatzagoa da.

5 urtekin:



Orain arte grafia eta forma
guztiekin eginiko esperien-
tziak direla medio, grafien
arteko konbinaketa aberats eta
zailak agertzen dira.

Esperientzia automugatzai-
lek lehenetsia hartzen dute.

- Trazuak zehaztasun handi-
agoa hartzen du.

- Trazuaren tamaina txikia-
gotzen da. Miniaturak azaltzen
dira.

- Irudi berriak azaltzen dira:

trapezioak, elipseak, izarrak, bihotzak.

- Lerro horizontal eta bertikalak tartekatuz osaturiko saila.

- Laberintoak.

- Letra eta zenbakien agerpena handiagotzen da. Letrak apaindu egiten dituzte.

Datu hauek argialetxeak

Konparaketa honen ondorioz, fitxa liburuan proposatzen diren grafia guztiak eta baita proposatzen ez diren beste batzuk ere ("beharrezkoak" ez direlako) 3 urtetik 5 urte bitarteko haur guztien berezko ekoizpen grafikoetan azaltzen direla baieztatu dugu.

toreak lortzeko pentsaturik daudela esan genezake.

Fitxetan proposaturiko ariketetan, ezarritako marku bati zehazki lotzearen betebeharrak dago. Emaizta "egokia" izateko, trazuaren sendotasuna behar da eta baita esku eta begien arteko koordinazio handia ere.



proposaturiko grafiekin konparatuko ditugu orain:

Fitxa erabiliz edo ez erabiliz, trebetasun grafomotore berdinak lortu al daitezke?

Argialetxeek diseinatutako fitxak, gehiegi nekatu gabe aztertzen baditugu, begi eta eskuen arteko koordinazioa eta irakurketa-idazketaren apendizaiia erraztuko dituzten trebetasun grafomo-

Baina, berezko produkzio grafikoak aztertzen baditugu, hasiera batean egituratu gabe azaltzen badira ere (trazu handiak, zehaztasun gutxirekin, antolaketarako asmorik gabe), pixkanaka egituratzen eta mugatzen joango direla ikusiko dugu.

Haurra bera izango da espazioa antolatzen duena, antolaketak horren barne grafia desberdinak eratuz, trazuaren zehaztasunerako lagungarria den esku-begien arteko koordinazio maila on bat lortuz, berdin-berdin. Hauxek izango dira esperientzi automugatzailak.



































































Gainera, beste kasutan gertatzen ez den bezala, jarduera oso esanguratsua izango da haurrentzat.

Eta ez dezagun gure burua engainatu: berezko jardueraren bidez, idazketaren apendizaiari aurre egiteko trebetasunak lortzen ez dituztenek, ez dituzte grafiako fitxak erabiliaz ere lortuko. Azpimarratzekoa da trebetasun gehiago dituztenek, "behar" ez dutenek, fitxa hauek emanaz gero, erabiltzeko joera azaltzen dutela, ondo burutzeko trebetasunekin kontaktzen dutelako.

Beraz, esan genezake fitxak erabiliz edo berezko jarduera bultzatuz, trebetasun grafomo-

ARGIALETXEAK	BEREZKO JARDUERETAN JASOTAKO EMAITZAK
-Zirkulu, laukizuzena, triangelu eta karratua.	3 urtekin
-Lerro horizontalak.	3 urtekin
-Lerro bertikalak.	3 urtekin
-Lerro diagonalen saila.	3 urtekin
-Lerro diagonalen saila tartekatua.	3 urtekin
-Espiralak.	3 urtekin
-Uhinen saila.	3 urtekin
-Bukle saila.	3 urtekin
-Gurutzen saila.	3 urtekin
-Ikoroskien saila.	3 urtekin
-Arku eta kurbak.	3 urtekin
-Marradura eta punteaketa.	3 urtekin
-Bokalen saila.	3 urtekin, baina ez saila bezala, izenak edo letra solteak baizik.
-Lerro bertikal eta diagonalen saila tartekatua.	4 urtekin
-Lerro desberdinez osaturiko saila.	4 urtekin
-Karratuen saila.	4 urtekin, baina konposizio baten barne (etxeak adibidez)
-Triangeluen saila.	4 urtekin, baina konposizio baten barne (teilatuak adibidez).
-Lerro horizontal eta bertikalen saila tartekatua.	5 urtekin

3, 4 eta 5 urteko haurren berezko ekoizpenetan jasotako emaitzak

	3 URTE	4 URTE	5 URTE
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
			

tore berdinak lortu daitezke.

Baina itxaron. Ez dugu oraindik bukatu.

Pentsa dezagun fitxen erabilpena arau bat inposatzeko zuzendua dela. Gauzak asko aldatzen dira, orain "egiteko era" desberdinez, aurkako ikusmolde ideologikoz, erabat kontrajarrian dauden ikusmolde ideologikoz.

Garbi dago idazketak, kode unibertsalak izateko, giza arauak behar dituela eta giza arautegiaren barne dagoela. Baina, zein da giza araua sartzearen asmoa?

Zerezkutatzen da fitxa inozente horren azpian?

Bi ikuspuntutatik uler dezakegu gaia:

1. Giza araua, talde bezala identifikatzeko prozesutan laguntzeko asmoz sartua izatea.

Kasu honetan fitxa erabiltzea, taldeko partaide guztiak egiten dituzten jarduerak bezala ulertzen da. Jarduerak talde horren partaide sentitzea posible izaten du, taldekideek bilduko ditu.

Baina, kontuan harturik talde bezala identifikatzeko pro-

zesuari laguntzen dioten ekintzak, modu natural batean sortzen direnak zenbatezinak direla, interpretazio hau nahiko azalekoa iruditzen zaigu. Denak ipuin berdina entzuten dugunean, denak kanta berdina ezagutu eta kantatzen dugunean, eguneroko ohikeriak egiten ditugunean (taldearen topagunea, gelako esertokiak...)... taldearen kontzientzia lortzen da eta etengabe bultza dezakegu.

Beraz, ez dugu nahikoa arrazoi topatzen fitxekin lan egiteko, helburua lorpen hori dela arrazoitzea.



daude.

Fitxa hori erabiliz, hezitzaileak inposatzen du nola egin behar den grafia konkretu bat (ezke-

eta honi esker hain mingarriak izan daitezkeen konparazioak gaindi ditzakegu.

Gure aukera argi eta garbi ideologikoa dela esan dezakegu.

Guk ezetz esaten diogu kanpotik ezarritako giza aginteari, eta baietz, berriz, haurrek egiten dituzten esperientzia automugatzailerei, hauen bitartez konbentzionalak diren arau grafikoak eraikitzen joango direlako.

Gure oinarria taldearen berezko jarduera izanik, kanpoko agintearen menpe egon beharrean, esperientzia automugatzailen bidez norberak eraikitzen duen barneko giza agintea erabiliz, grafiari aurre egitea izango da gure gogoia, horrela bilakatzen joan daitezten.

2. Beste interpretazio bat egin dezakegu, ideologikoki asmo zehatzak dituen joera: giza araua inposaketa bat da, kanpotik inposatutako disziplina gogorra ezartzeko mezu subliminal bat daraman giza araua, heteronomia indartu eta autonomiaren garapena galeraztea helburu nagusiak direlarik.

Haurrak bere kasa erabakiak hartzen lagatzen ez duen kanpoko giza agintea.

Ikusmolde hau eta guk ditugun helburuak elkarren kontra

rretik-eskuinera, ezarritako mugaren barruan, tamaina zehatz batekoa...) eta bere eskuetan haurren arteko konparaketak egiteko tresna izango du. Konparaketak dakartzan ondorioak ikustea, agerian egongo dira nahi duen edozeinentzako (haurrak barne) eta aintzat hartzea gehien behar duten haurrentzako oso kaltegarriak izango dira.

Gure proposamenean, desberdintasun hauek hezitzaileentzako ez dira oharkabe pasatzen, haurrentzat bai, berriz,

Argitaletxe baten proposamena

